

## PROPOSAMENAK

Gure jokaera aldatzea konprometitzen garen bezala, herriko Ingurumena hobetu dadin Udalarari zenbait eskaera egiten diogu. Zerrendan dituzuen eskaerak, Ikasleen Arteko Foroan adostutakoak dira:

Hauek dira publizitatearen inguruan egin dugun azterketaren ondorioz udalari aurkeztu nahi dizkiogun proposamenak:



1. Herrian adierazpen libreko guneak badaude baina ez dira errespetatzen. Guk uste dugu gehiago jarri behar direla eta publizitatea bertan bakarrik jartzea kontrolatu behar dela. Gainera udalak ere bere publizitatea horretan jartzen duela ikusi dugu eta Udala eredu izan beharko litzatekeela uste dugu.

Proposamenetako bat hurengoa litzateke: aste edo hilabete bakoitzean kultur ekitaldiak ez diren publizitateak sektoreka baimentzea. Hau da urtarileko lehen astean jostailu dendak, 2. astean inprentak, 3. nean merkatal zentroak ...

Beste proposamena enpresek publizitatea buzoneatu beharrean, horretako adierazpen gunez aparte, foiletoak uzteko gune informatibo bat sortzea etxeetan publizitate gutxiago jasotzeko bidea izango litzatekeela uste dugu. Gure azterketan astero 1 kg paper jaso dezakegula ikusi dugu.

2. "Publizitaterik ez" pegatinak heritarren eskura modu errazago batean jartzea. Adib: etxeetan banatzea. Eta pegatina daukaten postontziak postariak errespetatzea eskatzen dugu.

3. Orokorrean publizitate kopurua kontrolatu ahal izateko hurrengo ideiak bururatzen zaizkigu:

- Enpresei publizitate gutxiago egin dezaten eskatzea.
- Partidu politikoen propaganda kentzea.

4. Publizitatea bere neurrian beharrezkoa dela konturatu garez, herria ezagutzera emateko hurrengoak egin daitezkeela uste dugu:

- Enpresa txikiei diru-laguntzak ematea.
- Telebista, irrati eta aldizkarietan herriari buruzko iragarkia gehiago jartzea.
- Herria ezagutarazteko eslogan erakargarri eta dibertigarriak erabiltzea.
- Inguruko herrietan Aretxabaletari buruzko kartelak jartzea.
- Azken finean herria eta herriko denda txikiak ezagutzera ematea.

5. Udaletxeko publizitatea paper birziklatuan egin dadila.

Hau izan da aurtengo urtean egindako lanen laburpena. Gure proposamenak kontuan izango dituzuelakoan, denen izenean eskerrak eman nahi dizkizugu gaur Aretxabaletako gazteok esateko duguna entzutera etortzeagatik.



## PUBLIZITATEA

Gaur, hemen, Aretxabaletako ikastetxeetako ikasle eta irakasleen ordezkariak bildu gara, urtero bezala Eskolako Agenda 21 programan egindako lana udaletxe honetako ordezkariari aurkezteko.

Dakizuenez, proiektu honetan Kurtzebariko lehen hezkuntza eta bigarren hezkuntzako ikasle, irakasle, guraso, eta orokorrean ikas-komunitate osoak hartzen dugu parte eta horien guztien izenean gatoz hemen bildu garen ikasleak.

Lehenengo urtean kontsumoaren inguruan egindako lanaren berri eman genizuen eta ikasturte honetan kontsumoaren ari jarraituz PUBLIZITATEA aztertzen aritu gara bakoitzak bizi duen errealitatetik; hasi etxetik, eskolan, nahiz kalean. Hala, aurtengoa lehenengo urtean egindakoaren nolabaiteko jarraipena da.



Programaren barruan hiru ardatz aztertzen dira:

- **Ikastetxeko egoera;** zenbat publizitate jasotzen dugu? Egiten al da aukeraketarik? Ikastetxeak berak nola zabaltzen du publizitate hori?
- **Ikasgaietan ikasten duguna;** ba al dakigu publizitatearen inguruan jakin beharrekoa? Non lantzen dugu? Nahikoa al da?
- **Eta azkenik udalerriko egoera: Aretxabaleta eta publizitatea.**

Beraz atal guzti horiei esker esan dezakegu ikastetxean egungo egoera hobetzen saiatzen ari garela. Era berean udalerria aztertzean zenbait arazo ikusi ditu, eta horien aurrean zer egin dezakegun aztertu dugu. Publizitatea non nahi aurki dezakegu. Gure kaleetan, gure erropetan, gure etxeetan... Beharrezkoa al da hala izatea? Zerbait egin al dezakegu?

Gu baiezkoan gaude eta horregatik etorri gara hona, publizitatearen bonbardaketa ekiditeko hainbat eta hainbat neurri har ditzakegula konturatu garelako.

Gure aldetik, hori ekiditeko konpromisoak hartzeko prest gaude. Eta Udal honetatik ere neurri ezberdinak bideratu daitezkeela ikusi dugunez, horien gaineko proposamenak Udaleko ordezkariari helarazi nahi dizkizuegu.

Beraz, gaur ospatuko dugun udalbatzararen helburua publizitatearen inguruan aurkitu ditugun arazoei irtenbidea aurkitzeko har ditzakegun neurriak plazaratzea da.

## HERRI MAILAKO DIAGNOSTIKOA

Behin publizitateari buruzko informazioa jaso ondoren Aretxabaletako herrian egoera nolakoa den jakin nahi izan dugu.

**Gelan eta kalean hurrengo azterketak egin ditugu:**

- 1. eta 2. mailakoek jostailuen inguruan egiten den publizitatea aztertu dute.
- 3. eta 4. mailakoak berriz kalera atera eta herrian zehar publizitatea nola dagoen begiratzen aritu dira.
- 5. eta 6. mailakoek etxeetara iristen zaigun publizitate kopurua eta mota begiratu dute.
- DBH 1 eta 2. mailakoak soinean daramagun publizitateaz jabetzeko ekintzak egin dituzte.
- DBH 3. eta 4. mailakoek herria ezagutzera emateko bideak aztertu dituzte.

Maiatzaren 12an denon ideiak eta ekarpenak batzeko helburuarekin bi ikastetxeetako ordezkariak elkartu ginen. Saio hartan bakoitzak egindako lana gure ikaskideei azaldu genion eta egindako lanaren ondorioak aurkeztu genituen. Denen lana mahai gainean izanik guztien artean adostutako konpromiso eta proposamenekin, aurkezten dizuegun txostena egin dugu.



## KONPROMEZUAK

Ikasleok betetzeko prest gauden konpromezuak:

1. Hemendik aurrera propagandarik ez pegatina jartzeko esango diegu gure gurasoei, horrela ez dugu hainbeste jasoko.
2. Jostailu bat erosi aurretik ondo pentsatuko dugu ikasi duguna kontuan harturik
3. Gutxiago kontsumitzen saiatuko gara.
4. Birziklatu egingo dugu.
5. Ez diogu publizitateari kasurik egingo, gehienetan gezurrak esaten dituelako.
6. Telebistan publizitatea agertzen denean kanala aldatuko dugu.
7. "Apagoia" egiten saiatuko gara.
8. Herria ezagutzera emateko:
  - Herriari buruz ondo hitz egingo dugu.
  - Kanpora goazenean irudi ona emango dugu.
  - Herriko gauza onak gorai patuko ditugu: jaiak, Urkulu,...
  - Norbait gure herriari buruz gaizki esaka ari bada, iritziz aldarazten lagunduko diogu.

